

Hurrengo bihurgunean zer topatuko

Irati Majuelo

Bederatzi kontakizun, pertsonaia bera, Lur, espazio bera, Madril, eta marko tenporal antzekoa. Uxue Apaolazaren azken liburuak barnebiltzen duen egitura da, hondoko oinarriak sinpleena. Horren gainean erakitzen dira, ordea, konplexutasun sendoz eta elkar gurutzatuz, bederatzi tramak. Izan ere, ipuin independenteak dira, gainerako narrazioekin funtsezko ezaugarriak partekatuta arren, beren kabuz funtzionatzen dutenak. Alabaina, egia da bata bestearen segidan irakurtzeak beste puntu bat ematen diela, osotasuna irudikatzeke eta detaile txikiak gozatzeko gakoak aurki baitaitezke batetik besterako saltoan.

Protagonista bera bezala. Izan ere, Lurrekin aldera liteke ipuinen izaera, protagonista bera autonomoa baita, ez bakartia, baina bai bere kasa ibiltzekoa, zenbaitetan soziorata joera izan nahiko lukeena edota lehor samarra, baina besteekiko erakitzen dituen harreman hautatu eta hautatu gabekoetan harrapatu aurki-



'Bihurguneko nasa'

Idazlea: Uxue Apaolaza. **Argitaletxea:** Susa.

tzen duena bere burua. Hala, kontakizunotan ardatza da Lur, baina lagunekin, bikotearekin, lankideekin, kaleko ezezagunekin zein gurasoekin dituen harremanetan mugimendu oro neuritzen, epaitzen eta kuestionatzen hauteman daiteke, loturak ezartzen eta horiek galdekatzen.

Lurren pentsamenduan murgiltzen da irakurlea, narratzaileak lehen pertsonan adierazten baititu ipuinak. Protagonistaren kontzientzia sartuta, jolaserako erabiltzen du Apaolazak; ondorioz, egiaz istorioan gertatzen ari denaren, izan zitekeenaren eta Lurren buruan gorputzen ari denaren arteko lausotasunak zizpiztintzen ditu kontakizun guztiak. Anbiguitatean, errealtatearen eta pentsamenduari mugetan tenkatzen du tentsioa, eta horrek irakurleari arretaz irakurtzea exijitzen dio. Horrela bada, Apaolazak sarri ipuinen forma baliatzen du eta talkak sortzen ditu pertsonaia egin behar lukeenaren eta egiten duenaren artean, irakurleak aurreikusiten duenaren eta idazleak eginazten dionaren artean. Norabide aldaketa horiek dira liburuan indarra; adi, bihurgunek baitatoz.

Horren erakusgarri da kontakizun ia guztien amaieran gertatzen den hutsune edo arrarotasun sententzia, bidean zer gertatzen den ez kontrolatzearen plazera: bai, berriz ere idazleak jolastu du nirekin. Hortaz, ezin esan daiteke lan arinak direnik, geruza ugariako errelatoak baizik. Badute gordintasun nabari bat ere, kolpeka irakurleari itaunka ari balira bezala: non kokatzen zara? Biktimaz moztortu al zara? Zein da zure klase sozial erreala? Zein dira zure kontraesanak, nola irensten dituzu? Idazlearen kezka islatzen ditu, beraz, eta agerikoak dira bere baldintza materialekin bat egiten ez duen ustezko klase ertainaren miseriak, familiako kode zurrunak, amatasun eredu intentsiboa, kaleko jazarpenaren epaiek eta edota gizartearen berekoikeria. Nabari da, halaber, sikonagoko beldur eta kezka ere askatzeko bide eman diola idazketa prozesuak Apaolazari, horiek irakurlearentzako enkriptaturik gordetako ikaspenak badira ere. Liburu original eta interesgarria ekarri du argitara, indartsua eta behin baino gehiagotan irakurtzea merezi duena; hurrengo bihurgunean zer topatuko.



'Totototo'

Idazlea: Ane Labaka. **Ilustratzailea:** Mariñe Arceo. **Argitaletxea:** Elkar.

Koldo eta Laia dira liburuak bi protagonistak, eta biek dute hizketarako zailtasunen bat. Mihi puntan trabatzen zaizkio hitzak Koldori, eta Laiak, berriz, behar ez den tokian kokatzen ditu hitz zatiak. Egileen hitzetan, kanturako eta jolaserako proposamen bat da lana, irakurle hasi berrientzat zein txikiagoentzat.



'Plazida, oihartzunaren plaza'

Idazlea: Oihana Iguaran. **Ilustratzailea:** Maria Altuna. **Argitaratzailea:** Zizurkilgo Udala.

Plazida Otaño bertsolari zizurkildarraren inguruko ipuin ilustratua sortu dute Oihana Iguaran bertsolariak eta Maria Altuna artistak. Otañoren sortzerriaren erakusketak ere antolatu dute liburuan ikus daitezkeen ilustrazio originalekin.



'Pitzatuta gaude denok!'

Idazlea: Amaia Telleria. **Argitaletxea:** Alberdania.

Jone da eleberrirako liburuaren protagonista. Mezu baztertzailak jasotzen ditu sakelakoan, eta izeba Euriengana bidaliko du amak udan, kostaldera, giroa aldatzearen. 12 eta 14 urte inguruko irakurleentzat sortutako Erria Txikota bilduman argitaratu du lana Alberdania argitaletxeak.

Arrakasta ziurra



Imanol Mercero

Azalpen liburu ilustratua da (27x21 cm), 128 orrialdekoa, tapa gogorak barne. Ilustrazio lanak asko baldintzatzen du irakurketa, hordigarririk baitira oinarriko forma geometrikoetan erakitako irudiak, halako kolore kontraste indartsuekin.

Ikuspuntu antropozentrikoa du liburu ia osoak, inolako beharrik gabe askotan (ikus: 10. orrialdea adibide gisa, non adierazten den 428.000 landare espezie daukela, horietatik 34.000 onuragarriak; esan gabe ulertzen delarik onura pertsonentzako dela).

Landareen erreina ezagutzeke azalpen sorta aski zabala da, dibulgazio grina nabarmenarekin, adin desberdinetako jakin-goseak asetzeko modukoa.

Lau ataletan partituta dago,

baina benetako egitura atalen barruan dauden azpiatalak dira. Nolabaiteko jakintza zertzeladen multzoa osatzen dute. Azpiatal guztiak elkarren artean autonomoak dira eta bi orrialdetan hasibukatzen dira, ezker-eskuin.

Azpiatal horien artean dozena bat *zuk zeuk egin* erako esperimenduak dira, etxean erraz egiteko modukoak. Hasieran aurkibidea du, eta amaieran hiztegia eta indizea.



'Eguzkia gosaldut'

Idazlea: Michael Holland. **Ilustratzailea:** Philip Giordano. **Itzultzailea:** Miren Arratibel. **Argitaletxea:** Txartalo.

Literaturaren muina



Imanol Mercero

Albun ilustratu mutua da, tamaina ertainekoa (29x23 cm), 40 orrialde hartzen dituzten 20 ilustrazio osatua.

Irakurketa maila desberdinak ditu, jolas literario sinpleenetatik hausnarketa mamisuetara.

Ilustrazioen kolore paleta nagusia berde-urdina da, pintzelarekin landua gehienbat, eta bi (zenbaitetan hiru) margo esku dituen. Nagusitasun hotz horren gainean horia, gorria eta zuria erabiltzen dira kontrasterako. Atzealdeetako kolore masak ez dira uniformeak, tonalitate desberdineko zertzeladak agertzen dira han-hemen, estetikoak ez diren funtzio gehigarriekin; mugimendua, formen nabarmen-

tzea eta sekuentzien kateamendua, kasurako.

Gure *alter ego*-a haur bat da, bidea egin ez oihanean aurrera doana, norabait.

Oinarriko irakurketa jolasa da: segidako orrialdean zein pertsonaia topatuko duen asmatzea proposatzen diguna, ahal den neurrian, dena gidatzen duen logika antzemateko.

Amailerak ezustekoa du, bigarren hausnarketa maila sakonagoetara joateko giltzarri.



'Oihana'

Ilustratzailea: Marina Gibert. **Argitaletxea:** Kalandraka - Pamiela.